



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA




MUNGIAKO HAUR ETA GAZTETXOEN HIZKUNTZA OHITUREN AZTERLANA, 2015

Egilea: Aztiker Soziologia Ikergunea
Zuzendaritza eta koordinazioa: Soziolinguistika Klusterra



AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	3
1. IKERKETAREN METODOLOGIA: INKESTA.....	4
1.1 Unibertsoak eta laginak	4
1.2 Berkodetzeak	5
1.3 Erabilera-tasa esleituak	6
1.4 Komunikabide eta kultur kontsumo-tasa esleituak.....	8
1.5 Etxeko erabilera orokorra, eskolako erabilera orokorra eta komunikabide eta kultur kontsumo orokorra.....	9
2. AZTERTUTAKO IKASLEEN EZAUGARRIAK.....	13
2.1 Ikasmaila	13
2.2 Ikastetxea	13
2.3 Ikasleen (eta euren gurasoen) jatorria.....	14
2.4 Ikasleen (eta euren gurasoen) jatorria. Sintesia.....	16
2.5 Lehen hizkuntza	18
3. IKASLEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA	20
3.1 Ikasleen hizkuntza-gaitasun erlatiboa.....	20
3.2 Hizkuntzen zailtasunari buruzko ikasleen iritziak.....	22
4. IKASLEEN HIZKUNTZA ERABILERA ETA KONTSUMOA	26
4.1 Erabilerari buruzko datu esleituak, laburpena	26
4.2 Etxeko erabilera	29
4.3 Erabilera eskolan.....	34
4.4 Erabilera eskolaz kanpoko jardun antolatuetan.....	42
4.5 Erabilera lagunekin eskolaz kanpo, jardun ez antolatuetan	45
4.6 Euskara komunikabide eta kultur kontsumoan.....	46
5. IKASLEEN HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNA.....	49
6. IKASLEEN EUSKARAREKIKO IRITZIAK	52
6.1 Lekuen arabera hizkuntza egokitasunari buruzko ikasleen iritziak.....	52
7. AZTERTUTAKO GURASOEN EZAUGARRIAK.....	56
7.1 Seme-alabak matrikulatutako ikastetxea	56
7.2 Galdera-sortak erantzundako hizkuntzak.....	56
8. GURASOEN HIZKUNTZA ERABILERA.....	60
8.1 Etxeko erabilera (II)	60
8.2 Erabilera lagunartean	62
9. ERABILERAREN BILAKAERA SUBJETIBOA	66
10. SEME-ALABAK ETA EUSKARA, GURASOEN IRITZIAK	68
10.1 Seme-alaben hizkuntza-ohiturak	68
10.2 Seme-alabek euskararekiko duten jarrera	71
10.3 Seme-alabek etorkizunean izango duten hizkuntza erraztasuna.....	71
11. GURASOEN PRESTUTASUNA EUSKARAREN INGURUAN.....	74
ONDORIOAK.....	76
HOBETUNTZA PROPOSAMENAK.....	80



I ERANSKINA. GALDESORTAK.....	82
II ERANSKINA. TAULA GURUTZATUAK.....	88



HITZAURREA

Herri euskaldunetan-edo gaur egun daukagun zalantzarik nagusienetako bat gaztetxoek hizkuntza erabilera da. Izan ere, irakaskuntzak eskola-eremuan euskararen erabilera bermatu duen arren, argi dago gazteek esparru ez arautuetan ez dutela hitz egiten euskaraz guk espero dugun beste.

Uste horrek errealitatearekin bat egiten duen edo erdia ustela duen jakiteko, eta, batez ere, errealitate horretatik abiatuta, eragin- eta lan-ildo berriak topatzeko, Mungiako Euskeraren Aholku Batzarrak 2014an ume eta gaztetxoei inkesta bat egitea erabaki zuen. Eta gaztetxoei ez ezik euren gurasoei ere bai, familia-erabilera delako zalantza horren azpian dagoen elementu nagusia.

Horiek horrela, Soziolinguistika Klusterrak Arrue proiekturako aukeratutako adin-tarte berberak hautatu ziren lagin modura, hau da, LMHko 4. maila eta DBHko 2. maila. Datu bilketarako tresna modura, berriz, inkesta bi egitea ebatzi zen. Batetik, ikasleentzako inkesta, Arrue proiektuan erabilitakoa, arean laburtuta. Eta bestetik, gurasoentzako inkesta, Larramendi Ikastolak 2012-2013 ikasturtean bere gurasoei egindakoa.

Inkestak martxoaren 11tik 28ra bitartean bete zituzten ikasleek, Googlek eskaintzen duen formulario sistema erabilita. Sistema hori erabiltzeak itzel erraztu zuen bai datu bilketa baita datuen oinarritzko tratamendua bera ere. Gurasoena, ordea, ohiko sistema erabilita egin zen, hau da, gurasoei gutun bidez banatu zitzairen inkesta, eta datuak eskuz sartu beharra egon zen. Guztira 496 inkesta batu ziren, 343 ikasleenak eta 153 gurasoenak.

Datuen hasierako tratamendua Euskera Sailak berak egin zuen, gogotsu baina baliabide eta ezagupenetan urri. Handik ateratako ondorioak ikastetxeei 2014ko maiatzean banatu zitzaizkien. Datu horiek esku artean hartuta, Euskeraren Aholku Batzordeak azterketa sakonagoa merezi zutela erabaki zuen, datu horiek interpretatzeak normalkuntzan eta euskararen ikaskuntzan pista asko eman ditzakeelakoan. Horrenbestez, Udalak Soziolinguistika Klusterrera jo zuen datuon tratamendu sakonagoa eskatzeko.

Mungiako Udala (Euskara Saila)

1. IKERKETAREN METODOLOGIA: INKESTA

Txosten honetan Mungiako eskoletako ikasleek betetako inkesta baten erantzunen emaitzak aurkezten dira. Baita ikasle horien gurasoek betetako inkestaren emaitzak ere. Ikasleak, Lehen Mailako Hezkuntzako 4. mailako (LMH4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako (DBH2) ikasleak dira, zehazki. Inkesta 2015eko martxoaren 11 eta 28 artean egin zen Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta martxoa eta maiatzaren artean gurasoena.

Hainbat alorretan ikasleek duten gaitasuna neurtzeaz gain, ikasleen eta euren familien hainbat ezaugarri ere biltzen dira galdera sorta baten bidez (ikus galdera sortak I. eranskinean), tartean hizkuntzen ezagutza, erabilera eta jarrerei buruzko alderdiak. Aplikazio informatiko baten bitartez erantzun zieten ikasleek galdera horiei. Gurasoek berriz, etxean paperean betetako inkesta bidez.

Txosten honetan, beraz, galdera sorta horietan jasotako informazioaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

1.1 Unibertsoak eta laginak

Ikasle unibertsoa: 2013-2014 ikasturteko 412 ikasle. 207 LMH4koak eta 214 DBH2koak. 178 ikastetxe publikokoak eta 243 ikastetxe pribatukoak.

	LMH4	DBH2	GUZTIRA
Publikoa	72	106	178
Pribatua	136	108	243
GUZTIRA	207	214	422

Ikasle lagina: Guztira 345 inkesta ustiatu dira. 148 LMH4koak eta 197 DBH2koak. 118 ikastetxe publikokoak eta 227 ikastetxe pribatukoak.

	LMH4	DBH2	GUZTIRA
Publikoa	12	106	118
Pribatua	136	91	227
GUZTIRA	148	197	345

Unibertsoa eta laginaren arteko erlazioa aztertuta, argi ikusten da LMH4 publikoko azpi-segmentuak gabeziak dituela. Hala ere, alboraketa hori kontuan hartuta ere, segmentuka, hau da, ikastetxeen izaera kontuan hartuta alde batetik edo bestetik ikasmila, alboraketa



txikitzen da nabarmen. Kasurik txarreanean, izaera publikoko unibertsoaren %66,3a biltzea lortu da.

	LMH4	DBH2	GUZTIRA
Publikoa	16,7	100,0	66,3
Pribatua	100,0	84,3	93,0
GUZTIRA	71,2	92,1	81,8

Gurasoen kasuan, unibertsoaren inguruko datu zehatzik ez dugu bildu. Ondorengo taulan ageri dira jasotako inkesten banaketa ikastetxearen izaeraren eta ikasmailaren arabera.

	LMH4	DBH2	GUZTIRA
Publikoa	9	72	81
Pribatua	48	22	70
GUZTIRA	57	94	151

Unibertsoaren daturik izan gabe ere, guraso hauek ezin dira unibertsoaren ordezkagarriak izan, bi arrazoi nagusirengatik:

- Batetik, Larramendi ikastolako gurasoen erantzunik ez delako bildu.
- Bestetik, jasotako inkestak ez direlako ikasleen unibertsoaren proportzioetara hurbiltzen. Beraz, ziurren desorekaren bat egongo da.

1.2 Berkodetzeak

Inkestan egindako jatorrizko galdera-erantzunetan oinarrituta, honako berkodetze hauek landuko ditugu txosten honetan:

Jatorria. Ikasleak, haren ama eta haren aita non jaio diren aintzat hartuta, honako kategoria hauetan multzokatu ditugu:

- Euskal Herrian jaioak, ikaslea eta gurasoak
- Gurasoetako bat estatuan, ikaslea bertan jaioa
- Gurasoetako bat atzerrian, ikaslea bertan jaioa
- Bi gurasoak estatuan, ikaslea bertan jaioa
- Bi gurasoak atzerrian, ikaslea bertan jaioa
- Denak estatuan jaioak
- Denak atzerrian jaioak

- Bestelako egoerak edo informazio hutsuneak

Euskararekiko eta gaztelaniarekiko begikotasuna. Euskara batetik eta gaztelania bestetik zein neurritan dituzten gustuko aintzat hartuta (batere ez, gutxi, normal, nahiko edo asko), hiru multzotan sailkatu ditugu ikasleak:

Euskara nahiago dutenak (euskararekiko gaztelaniarekiko baino begikotasun handiagoa adierazi duten ikasleak).

Gaztelania nahiago dutenak (gaztelaniarekiko euskararekiko baino begikotasun handiagoa adierazi duten ikasleak).

Bi hizkuntzekiko begikotasun-maila bera adierazi dutenak.

Euskararekiko eta ingelesarekiko begikotasuna. Arestian aipatutako irizpide berberekin sortu dugu aldagai berri hau ere.

Euskararen eta gaztelaniaren erraztasuna/zailtasuna. Euskara batetik eta gaztelania bestetik zein neurritan iruditzen zaizkien zailak/errazak aintzat hartuta (oso zaila, normala, erraza, oso erraza), hiru multzotan sailkatu ditugu ikasleak:

Euskara errazagoa dela diotenak (euskararen zailtasun maila gaztelaniarenaren azpitik jarri dutenak).

Gaztelania errazagoa dela diotenak (euskararen zailtasun maila gaztelaniarenaren gainetik jarri dutenak).

Bi hizkuntzei erraztasun-/zailtasun-maila bera aitortzen dietenak.

Euskararekiko eta ingelesarekiko erraztasuna/zailtasuna. Arestian aipatutako irizpide berberekin sortu dugu aldagai berri hau ere.

1.3 Erabilera-tasa esleituak

Inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko asmoz, eta hizkuntza-erabilerrari buruzko hainbat galderari emandako erantzunetan oinarrituta, **euskararen erabilera-tasa esleituak** kalkulatu ditugu, honako aldagai hauetan:

- Ikasleen erabilera irakasleekin gela barruan
- Ikasleen erabilera irakasleekin gelatik kanpo
- Irakasleen erabilera euren artean
- Ikasleen arteko erabilera gela barruan

- Erabilera gelako lagunekin jolaslekuan
- Ikasleen erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan
- Ikasleen erabilera lagunekin eskolaz kanpo
- Etxekoen erabilera denak batera daudenean (jatorduetan, telebistanë) (ikasleek betetako itema)
- Etxekoen erabilera guraso eta seme-alaben artean (gurasoek betetako itema)

Zehazki, aldagai horietako bakoitzean, ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako balio hau eman diogu erantzun posible bakoitzari:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Balio horietan oinarrituta, eta ikasle guztiak kontuan hartuta, euskararen erabilera-tasa zenbatekoa litzatekeen kalkulatu dugu. Adibide gisa, hona hemen “*Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan?*” galderari LMH4ko ikasleek emandako erantzunak eta horietan oinarrituta nola kalkulatu dugun erabilera-tasa esleituia.

	LMH4		Erabilera esleituaren tasaren kalkulua	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%) A	% B	% A*B/100
Euskaraz bakarrik	34	24,8	100	24,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	26	19,0	75	14,2
Bietan berdín (gaztelaniaz eta euskaraz)	31	22,6	50	11,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	31	22,6	25	5,7
Gaztelaniaz bakarrik	15	10,9	0	0,0
Beste hizkuntza batean			0	0,0
Guztira	137	100,0		
Esleitutako erabilera tasa				56,0

Erabilera-tasa esleituak zera esan nahiko luke: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboratzerik ez balego), zenbat euskara entzungo litzatekeen, ehunekoetan adierazita. Adibidearen kasuan, kopuru horrek zera adieraziko digu: inkestako erantzunen arabera, %56,0koa da euskararen erabilera LMHko haurren artean Mungiako ikastegietako jolaslekuetan.



Ikasleen erabilera tasa lagunekin eskolaz kanpo kalkulatzeko, zeharka bada ere, gaiari buruz inkestan jasotako galdera bakarra hartu da *kontuan* (*Zer hizkuntzatan WhatsAppeatu duzu zure lagunekin azkenekoz?*). Arruerekin alderatuta ordea, neurtu nahi den eremurako, galderaren formulazioa eta erantzun posibleak ezberdinak dira. Ondorioz, emaitzak ez dira guztiz alderagarriak. Lan honetan lagunekin eskolaz kanpoko tasa sortzeko Arruen hiru kategorietako itemetan tasa esleituak sortzeko metodologia erabili da. Beraz hurrengoak:

- Euskaraz = %100 euskaraz
- Gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean= %0 euskaraz

1.4 Komunikabide eta kultur kontsumo-tasa esleituak

Ikasleen komunikabide eta kultur kontsumo ezberdinen inguruan lau item neurtu dira. Zehazki galderak ondorengoak izan dira:

- Gehien entzuten duzun irratsaioa?
- Gehien bisitatzen duzun Web orrian?
- Gehien entzuten duzun musika taldea edo abeslaria?
- Gehien ikusten duzun telebista saioa?


Eta horien erantzun aukerak ϕ euskaraz ϕ ϕ gaztelaniaz ϕ edo ϕ beste hizkuntza batean ϕ izan dira. Zehazki, aldagai horietako bakoitzean, ikasleek emandako hiru erantzun posibleak hartu eta honako balio hau eman diogu erantzun posible bakoitzari:

- Euskaraz = %100 euskaraz
- Gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean= %0 euskaraz

Balio horietan oinarrituta, eta ikasle guztiak kontuan hartuta, euskaraz komunikabide eta kultur kontsumoaren-tasa zenbatekoa litzatekeen kalkulatu dugu. Adibide gisa, hona hemen ϕ Zer hizkuntzatan ϕ dago gehien bisitatzen duzun Web orria? ϕ galderari LMH4ko ikasleek emandako erantzunak eta horietan oinarrituta nola kalkulatu dugun kontsumo-tasa esleitua.

	LMH4		Erabilera esleituaren tasaren kalkulua	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%) A	% B	% A*B/100
Euskaraz	26	19,0	100	19,0
Gaztelaniaz	107	78,1	0	0,0
Beste hizkuntza batean	4	2,9	0	0,0
Guztira	137	100,0		
WEB kontsumo-tasa esleitua				19,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



1.5 Etxeko erabilera orokorra, eskolako erabilera orokorra eta komunikabide eta kultur kontsumo orokorra

Etxeko erabilera orokorra. Etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko, ikasleen inkestan oinarrituta, gaiari buruz inkestan jasotako bost galderaren emaitzak hartu dira kontuan. Zehazki, honako pisu hau eman zaio galdera bakoitzari aldagai birkodetu berria sortzerakoan, eta taulan aipatzen den balioa eman zaio kategoria bakoitzari:

Jatorrizko galdera	Galdera bakoitzari eman diogun pisua etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko	Erantzun posible bakoitzari eman diogun balioa
<i>Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...), zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?</i>	%50	Erabilera-tasa esleitu aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure amarekin?</i>	%15	Beti edo gehienetan euskaraz > %100 Beti edo gehienetan gaztelaniaz > %0 Beste hizkuntza batean > %0
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure aitarekin?</i>	%15	
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure neba-arrebekin?</i>	%10	
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gurasoek beraien artean?</i>	%10	Erabilera-tasa esleitu aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere ¹

Horren emaitza **etxeko erabilera-tasa orokorra** dugu, eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da.

Bestalde, etxeko erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, **etxeko erabilera multzotan** aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren etxeko erabilera-tasa esleituaren arabera (honako irizpide hauek 2011ko Arrue ikerketan finkatu ziren², eta hemen ere aplikatuko ditugu):

- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0 (erabilera-tasa esleituia %0,0koa denean).
- Euskara %1,0-%30,0 (erabilera-tasa esleituia bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskara %30,1-%70,0 (erabilera-tasa esleituia bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskara %70,1-%99,0 (erabilera-tasa esleituia bi kopuru horien artean dagoenean).

¹ ARRUEko ikerlanean galdera honek hiru kategoria ditu, beraz tasa esleituia ez da berdina kalkulatzeko

² Soziolinguistika Klusterra: *Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilaren datuak. LMH44ko eta DBH22ko ikasleak (EAE). Emaitza nagusiak.*

- Guztia euskaraz, %100,0 (erabilera-tasa esleitua %100,0ekoa denean).

Gurasoen inkestan oinarrituta, etxeko erabilera orokorra esleitzeko hiru aldagai daude:

- Etxeko hizkuntza gurasoen artean tasa esleitua
- Etxeko hizkuntza seme-alaben artean tasa esleitua
- Etxeko hizkuntza gurasoen eta seme-alaben artean tasa esleitua

Aurrez azaldutako eragiketaren zentzuan horrela sortu dugu etxeko erabilera-tasa orokorra gurasoen inkestatik abiatuta:

Jatorrizko galdera	Galdera bakoitzari eman diogun pisua etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko	Erantzun posible bakoitzari eman diogun balioa
<i>Zein da etxeko hizkuntza? Gurasoen eta seme-alaben artean</i>	%80	Erabilera-tasa esleituan aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere
<i>Zein da etxeko hizkuntza? Seme-alaben artean</i>	%10	Erabilera-tasa esleituan aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere
<i>Zein da etxeko hizkuntza? Gurasoen artean</i>	%10	Erabilera-tasa esleituan aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere


Ikasleen eskolako erabilera orokorra

Ikasleen eskolako erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako lau galderaren emaitzak hartu dira kontuan (honako irizpide hauek 2011ko Arrue ikerketan finkatu ziren³, eta hemen ere aplikatuko ditugu):

- Ikaskideen artekoa gelan
- Gelako lagunekin jolaslekuan
- Irakasleekin gela barruan
- Irakasleekin gelatik kanpo

Lau erabilera horiek konbinatu dira **ikasleen eskolako erabilera orokorra** mendeko aldagai trinkoa osatzeko, baina ez zaie lau erabilerei pisu bera eman mendeko aldagaiaren barnean. Irudi honetan adierazten da mendeko aldagaiaren barnean zer-nolako pisua eman zaion lau erabilera horietako bakoitzari:

³ Soziolinguistika Klusterra: Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. LMH44ko eta DBH22ko ikasleak (EAE). Emaitza nagusiak.




Zergatik eman zaie lau erabilerei pisu ezberdina mendeko aldagaia osatzean? Eta zeren arabera hobetsi da haztapen hori eta ez beste bat? Hona hemen 2011ko txostenean galdera horiei ematen zitzaien erantzuna:

“Ondoko hiru parametroak hartu dira kontuan haztapena egiteko garaian:

- Mintzajardunaren zenbatekoa: zenbaki zehatzetan ezin eman baliteke ere normalean, bistan da ordu gehiago “sartzen” dituela LMH44ko (zer esanik ez DBH22ko) ikasleak bere ikaskideekin, irakasleekin baino. Ordu gehiago hitz egiten. Funtsezkoa da puntu hori: jardunak, hitz egiteak (mezu-iturri izateko gaitasun eragileak, ez besteri entzundakoa ulertzeko jasotze-gaitasun hutsak) aktibatzen du hiztunon erabilera, bere osoan. Ahozko jarduna, hitzezkoa, bereziki da alor horretan zentrala.*
- Mintzajardunaren nolakoa: gizarte-bizitzarako garapen-oinarri gisa esanguratsuagoa da ikasleen arteko erabilera informala, eguneroko asmo-gogo-beldur-irrikez oratua, trebetasun-edo ezagutza-item kurrikularrak lantzeko jarduera formala baino. Funtsezko puntua da hori: Pitagoras-en teorema (eta hura azaltzeko hizkera moldea) ez dugu gehienok, eguneroko bizian, baliatu beharrik izaten: han jasotzen den hainbat pautu egoki gerta liteke interakzio-baldintza formaletarako, baina (lanbide batzuetako jarduera-esparru batzuetan izan ezik) gutxi dira halakoak hiztun-elkarte gehienetan eta are gutxiago (euskara-erdaren funtzio-moldaera nagusiaren ondorioz) gurean.*
- Mintzajardunaren situazio-egoera (non-norekiko jardunaren eragina): diferenteak dira irakasleekiko harreman-jarduerak eta ikaskideekikoak, aurreko ataletan esandakoaz gainera, situazio-egoerak eragindako baldintzen aldetik ere. Libreagoak dira jarduera batzuk, eta ingurumen-baldintzek behartuagoak besteak. Ingurumen-baldintza horiek adierazgarriak dira, bestalde, solidaritate/aginte parametroen aldetik ere. Horrek ere pisua du, nola ez, jarduera horren aurrera begirako garapen-aukeretan”.*

Irizpide horietan oinarrituta eta arestian finkatutako haztapena aplikatuta sortu dugun aldagai berriari **eskolako erabilera-tasa orokorra** deitu diogu eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da.



Bestalde, ikasleen eskolako erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, **eskolako erabilera orokorra multzotan** aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren eskolako erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0
- Euskara %1,0-%30,0
- Euskara %30,1-%70,0
- Euskara %70,1-%99,0
- Guztia euskaraz, %100,0

Ikasleen komunikabide eta kultur kontsumo orokorra

Komunikabide eta kultur kontsumoa aldagai trinkoa osatzeko, kontsumoaren inguruan sortutako lau kontsumo-tasak erabili dira. Hau da, WEB kontsumo-tasa, TB saioa kontsumo-tasa, Musika taldea edo abeslaria kontsumo-tasa eta Irratsaio kontsumo-tasa erabili ditugu.

Ondoren lau aldagaiei pisu bera eman zaie haztapenean: bakoitzari aldagai trinkoaren %25.

Horrela sortu dugun aldagai berriari **komunikabide eta kultur kontsumo-tasa orokorra** deitu diogu eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da.

Bestalde, ikasleen komunikabide eta kultur kontsumoa aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, **komunikabide eta kultur kontsumoa multzotan** aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren eskolako erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0
- Euskara %1,0-%20,0
- Euskara %20,1-%40,0
- Euskara %40,0 baino gehiago



2. AZTERTUTAKO IKASLEEN EZAUGARRIAK


2.1 Ikasmaila

Aztertutako ikasleen laginak unitate gehiago ditu DBH2n LMH4n baino. Guztira, LMH4ko ikasleak %42,9 osatzen dute eta DBH2koak %57,1.

Ikasmaila

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
LMH4	148	42,9
DBH2	197	57,1
Guztira	345	100,0

Iturria: Mungiaiko haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



2.2 Ikastetxea


Bi ikastetxek dituzte ikasleak aztertutako bi mailetan. Bentades ikastetxea eta Larramendi ikastola. Beste biak maila bakarrean dituzte. Dena dela, ikastetxe bakoitzaren proportzioa oso ezberdina da maila bakoitzean. Larramendi ikastolak LMH4ko ikasleen inkesten erdia baino gehiago bildu ditu (%54,7). DBH2n berriz proportzio ia berdina du Mungia BHI Institutuak (%53,8).



Ikastetxea

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bentades ikastetxea	55	37,2	27	13,7
Larramendi ikastola	81	54,7	64	32,5
Laukarizko eskola	12	8,1		
Mungia BHI			106	53,8
Guztira	148	100,0	197	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



2.3 Ikasleen (eta euren gurasoen) jatorria


Hainbat jatorritako ikasleak ari dira ikasten gaur egun Mungiako ikastetxeetan, bai euren jaiotokua eta bai euren gurasoena aintzat hartuta. Gaiaren inguruan egindako galderei buruzko emaitzak bere horretan aurkezten ditugu ondorengo taulan.

Hamar ikasletik bederatzi inguru Euskal Herrian jaioetakoak dira. LMH4 eta DBH2ren artean aldea dago ordea. LMH4n %91,5 dira Euskal Herrian jaioak, DBH2n berriz %84,7ra jaisten da proportzio hori. Atzerrian jaioetako ikasleen proportzioa lau puntu t'erdi altuagoa da DBH2ko ikasleen artean.

Non jaio zinen zu?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskal Herrian	129	91,5	161	84,7
Beste Autonomia Erkidego batean	5	3,5	11	5,8
Atzerrian	7	5,0	18	9,5
Guztira	141	100,0	190	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Gurasoen jatorriari dagokionean, proportzioak antzekoak dira aiten eta amen kasuan: LMH4ko ikasleen gurasoen %85 inguru Euskal Herria jaiotakoa da. DBH2ko ikasleen artean apur bat baxuagoa da proportzio hori. %74,7 da aiten kasuan eta %70,2 amen kasuan.

Non jaio zen zure aita?	LMH		DBH	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskal Herria	120	83,3	124	74,7
Beste Autonomia Erkidego batean	7	4,9	10	6,0
Atzerrian	17	11,8	32	19,3
Guztira	144	100,0	166	100,0
Non jaio zen zure ama?	LMH		DBH	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskal Herria	123	86,0	118	70,2
Beste Autonomia Erkidego batean	7	4,9	24	14,3
Atzerrian	13	9,1	26	15,5
Guztira	143	100,0	168	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



Non jaio zen zure aita? Eta ama?




2.4 Ikasleen (eta euren gurasoen) jatorria. Sintesia

Gurasoen eta ikasleen jatorrien datuak konbinatuta, zazpi multzotako sailkapen batean berezi ditugu ikasleak, ondorengo taulan ikus daitekeenez. LMH4ko hamar ikasletik ia zortzi dira bi gurasoak eta ikaslea bera bertan jaioak direnak, DBH2n berriz ia zapi dira. Bestalde, ikaslea bera bertan jaio arren, gurasoetako bat edo biak kanpoan jaioak ditu ikasleen %15 baino gehiagok (%15,3 LMH4n eta %17,9 DBH2n).

Jaiolekua, sintesia

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskal Herrian jaioak, ikaslea eta gurasoak	108	78,8	105	69,5
Gurasoetako bat estatuan, ikaslea bertan jaioa	8	5,8	12	7,9
Gurasoetako bat atzerrian, ikaslea bertan jaioa	9	6,6	7	4,6
Bi gurasoak estatuan, ikaslea bertan jaioa	0	0,0	4	2,6
Bi gurasoak atzerrian, ikaslea bertan jaioak	4	2,9	4	2,6
Denak estatuan jaioak	2	1,5	2	1,3
Denak atzerrian jaioak	6	4,4	17	11,3
Guztira	137	100,0	151	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Kanpoan jaiotako ikasleen artean, gehiago dira DBH2n daudenak LMH4n baino. Multzo nagusia Euskal Herrian 6 urtetik gora daramaten nerabeek osatzen dute (%48,1). Denbora gutxien daramatenak, 4 urtetik behera, %33,3 dira LMH4n eta %37,0 DBH2n.

Zu Euskal Herritik kanpo jaio bazara, zenbat denbora daramazu hemen bizitzen?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bi urte baino gutxiago	0	0,0	2	7,4
2 eta 4 urte bitartean	3	33,3	8	29,6
4 eta 6 urte bitartean	2	22,2	4	14,8
6 eta 8 urte bitartean	2	22,2	7	25,9
8 urte baino gehiago	2	22,2	6	22,2
Guztira	9	100,0	27	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




2.5 Lehen hizkuntza

Ikasleen lehen hizkuntzari dagokionean, LMH4n euskara izan da nagusi (%41,3). Ondoren bai euskara bai gaztelania izan dutenak datoz (%32,9). DBH2n aldiz, lehen hizkuntza nagusia gaztelania eta gaztelaniarekin batera euskara dutenak dira (%33,5 bakoitzak). Ikasle horien artean (DBH2) multzo apalena osatzen dute euskara lehen hizkuntza izan dutenak (%25,9). Azpimarratzekoa da, aldi berean, lehen hizkuntzatzat hirugarren hizkuntza bat izan dutenen kopurua, bereziki DBH2n, %7,1a osatzen baitute.

3 urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	59	41,3	44	25,9
Bai euskara bai gaztelania	47	32,9	57	33,5
Gaztelania	32	22,4	57	33,5
Beste bat	5	3,5	12	7,1
Guztira	143	100,0	170	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



3. IKASLEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA

3.1 Ikasleen hizkuntza-gaitasun erlatiboa

Bi ikasmaitatuko ikasleetan, hitz egiteko gaztelaniaz eta euskaraz bietan berdina moldatzen direnak gehiengoak dira, nabarmenago LMH4koen kasuan. Aldea 10 puntukoa da bi hizkuntzatan erraztasun berarekin hitz egiten duten ikasleen proportzioan (%52,7 LMH4n eta %42,4 DBH2n).

Euskaraz errazago hitz egiten duten ikasleen proportzioan ere DBH2koak beherago daude. Zehazki, hamahiru puntu beherago daude DBH2koak (%15,7 eta %28,1).

Bestetik, DBH2ko ikasleen artean gaztelaniaz errazago hitz egiten dutenen proportzioa LMH4n baino 20 puntu handiagoa da.


Erreferentzia modura, gaitasun erlatiboari buruzko datuak EAEn hizkuntza gaitasuna %40-60 bitartean duten udalerrietako ikasleen datuekin alderatu ditugu⁴. Mungian euskaraz zein gaztelaniaz berdina moldatzen direnak gehiago dira, oro har zonalde soziolinguistiko bereko udalerrietan baino; izan ere, hizkuntza-gaitasuna hori duten udalerri guztiak hartuta, gutxi gorabehera, bestetik batek dio hori (%24,9ak LMH4n eta %18,3ak DBH2n). Aldiz, gehiago dira orokorrean gaztelaniaz hobeto moldatzen direla diotenak, %47 LMH4n eta %59 DBH2n.

Hitz egiteko erraztasuna: Orokorrean, zein hizkuntzatan duzu erraztasun handiagoa hitz egiteko

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz errazago	41	28,1	30	15,7
Bietan berdina (euskaraz eta gaztelaniaz)	77	52,7	81	42,4
Gaztelaniaz errazago	28	19,2	80	41,9
Guztira	146	100,0	191	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015

⁴ *61kasleak Hiztun* ARRUE ikerketa. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzak, 2011.



Ikasleen hizkuntza-gaitasun erlatiboa izan duten lehen hizkuntzarekin harremanetan jartzen badugu, euskara lehen hizkuntza dutenen artean, LMH4ko ikasle erdia pasatxok (%52,5) euskaraz du erraztasun gehiago eta ia beste erdiak bi hizkuntzetan erraztasun berdina eskuratzen du. DBH2n, ordea, euskaraz erraztasun handiagoa dutenen multzoa (%50,0) bere horretan mantentzen da, baina %15,9k gaztelanian erraztasun gehiago dutela diote. Beraz, LMHtik DBHrako jauzian, lehen hizkuntza euskara duten %12,5 ikasle gehiagok gaztelaniaz errazago aritzeko gaitasuna adierazten du.

Lehen hizkuntzat euskara eta gaztelania izan dutenen artean LMH4n ia bi herenek erraztasun bera dute bi hizkuntzetan, %14,9k euskaraz erraztasun gehiago eta %21,3k gaztelanian. Beraz, alde txikia (%6,4) izan arren, gaztelania dugu aurretik. DBH2n, aldiz, erdiak (%50,9) bi hizkuntzetan mantentzen du erraztasun bera, baina ia beste erdiak (%43,6) gaztelanian lortzen du erraztasun handiagoa. Euskaraz erraztasun handiagoa eskuratzen dutenek %5,5a osatzen dute. Beraz, DBHn euskaraz errazago eta gaztelaniaz errazago aritzen direnen arteko aldea (%38,1) nabarmen handiagoa da, LMHn ikus zitekeen aldea baino.

Gaztelania lehen hizkuntza dutenen artean, LMH4n erdia pasatxo (%54,8) dira euskaraz zein gaztelaniaz erraztasun maila bera lortzen dutenak, eta %6,5a dira euskaraz erraztasun gehiago dutenak. DBH2n, berriz, gaztelaniaren aldeko desoreka nabarmena dago %63,6k gaztelaniaz baitu erraztasun gehiago.

Laburbilduz, hizkuntza batean edo bestean erraztasun gehiago izatean lehen hizkuntzak zeresana du: batetik, euskara lehen hizkuntza dutenekiko, gaztelania ere lehen hizkuntzat duten ikasleek gaztelaniaz aritzeko erraztasun handiagoa adierazten dute, bai LMHn eta baita DBHn ere; eta bestetik, LMHtik DBHrako jauzian, euskara eta gaztelania lehen hizkuntzat duten ikasle gehiagok eskuratzen dute gaztelaniaz hobeto aritzeko erraztasuna euskara lehen hizkuntza dutenek baino. Beraz, lehen hizkuntza kontuan hartuz, euskaraz gain gaztelania duten ikasleek gaztelaniaz aritzeko erraztasun handiagoa adierazten dute eta erraztasun hori DBHn da handiagoa.



Euskara gaitasun erlatiboa lehen hizkuntzaren arabera	3 urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?			
	Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste bat
LMH4				
Euskaraz errazago	52,5	14,9	6,5	20,0
Bietan berdín (euskaraz eta gaztelaniaz)	44,1	63,8	54,8	20,0
Gaztelaniaz errazago	3,4	21,3	38,7	60,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
DBH2				
Euskaraz errazago	50,0	5,5	7,3	0,0
Bietan berdín (euskaraz eta gaztelaniaz)	34,1	50,9	29,1	36,4
Gaztelaniaz errazago	15,9	43,6	63,6	63,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

3.2 Hizkuntzen zailtasunari buruzko ikasleen iritziak

Euskara, gaztelania eta ingelesaren erraztasun-zailtasunari buruz galdetu diegu ikasleei eta emaitzak hurrengo taula-grafikoetan aurkeztu ditugu.

LMH4ko ikasleen ia hiru laurdenentzat (%73,87) euskara hizkuntza érrazaôedo óso errazaô da. Gaztelania aldiz, are gehiagori iruditzen zaie érraza/oso errazaôdela: hamar ikasletik ia zortzi dira hala uste dutenak (%77,8).


DBH2ko ikasleen artean euskararen aldeko kopuruak nabarmen apalagoak dira: aipatutako proportzioa (érrazaô+ óso errazaô) %53,9koa da euskarari buruz galdetuta, aldiz %79,6koa gaztelaniaren kasuan.

Ingelesarekin, kopuruak apalagoak eta ia berdínak dira bi ikasmailetan (%39,9 eta %39,3 hurrenez hurren).

Zer iruditzen zaizu...

Euskara	LMH		DBH	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso erraza	69	47,6	43	22,3
Erraza	38	26,2	61	31,6
Normala	35	24,1	71	36,8
Oso zaila	3	2,1	18	9,3
Guztira	145	100,0	193	100,0
Gaztelania	LMH		DBH	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso erraza	70	48,6	76	39,8
Erraza	42	29,2	76	39,8
Normala	29	20,1	34	17,8
Oso zaila	3	2,1	5	2,6
Guztira	144	100,0	191	100,0
Ingelesa	LMH		DBH	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso erraza	14	9,8	24	12,6
Erraza	43	30,1	51	26,7
Normala	59	41,3	79	41,4
Oso zaila	27	18,9	37	19,4
Guztira	143	100,0	191	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoén hizkuntza ohituren azterlana, 2015



Euskara eta gaztelania alderatzean (zaila-erraza / euskara-gaztelania), deigarria da LMH4ko ikasleen artean euskara gaztelania baino errazagoa dela dioten ikasleen proportzioa gaztelania euskara baino errazagoa dela esaten dutenen berdina dela (%29,4). Oro har, hizkuntza-gaitasun maila antzekoa duten EAEko udalerrietan gehiago dira gaztelania errazagoa dela diotenak (% 43,4)⁵.


DBHkoen artean joera alderantzizkoa da. Mungiara itzulita, ikasle nerabeen artean (DBH2) gehiago dira gaztelania errazagoa dela diotenak, izan ere, ia erdia osatzen baitute (%48,2). EAEko udalerrietan (beti ere zonalde soziolinguistiko berean) %34,8ak dio gaztelaniaz errazagoa dela. Beraz, Mungiako nerabeei gaztelania errazagoa egiten zaie, orokorrean gainontzeko udalerrietako nerabeei baino.

⁵ *Ikasleak Hiztun* ARRUE ikerketa. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza, 2013.

Euskararen eta gaztelaniaren erraztasuna/zailtasuna

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara errazagoa	42	29,4	31	16,2
Bi hizkuntzei erraztasun-/zailtasun-maila bera	59	41,3	68	35,6
Gaztelania errazagoa	42	29,4	92	48,2
Guztira	143	100,0	191	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Bestalde, euskara eta ingelesaren arteko alderaketan, esan dugu, LMH4 eta DBH2ko ikasleek hautemate antzekoa dute ingelesaren inguruan. Baina euskararekiko dituzten ezberdintasunak aldeak sortzen ditu bi hizkuntzekiko hautemateak alderatzean.

Bi ikasmailetakiko ikasleentzat euskara errazagoa da ingelesa baino, baina proportzioetan aldeak daude. LMH4ko ikasleen artean %65,7 diren bitartean, DBH2n %48,7 dira. Eta ingelesa errazagoa dela uste dutenak, LMH4n %10,5 dira eta DBH2n %23,0.

Euskararen eta ingelesaren erraztasuna/zailtasuna

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara errazagoa	94	65,7	93	48,7
Bi hizkuntzei erraztasun-/zailtasun-maila bera	34	23,8	54	28,3
Ingelesa errazagoa	15	10,5	44	23,0
Guztira	143	100,0	191	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015





4. IKASLEEN HIZKUNTZA ERABILERA ETA KONTSUMOA

4.1 Erabilerari buruzko datu esleituak, laburpena

Atal honetan erabilerari buruzko datu esleituak aurkeztuko ditugu. Metodologia atalean azaldu dugu xehe-xehe zein kalkulu egin diren datu horietara iristeko. Bost multzotan bereizi ditugu jardun eta eremu ezberdinetako erabilera datu esleituak (grisez ageri dira beheko taulan): Etxea, eskola barrua, eskolaz kanpoko ekintzak, lagunak, eta komunikabideak-kultura. Metodologia atalean azaldu dugu, multzo bakoitza zein erabilera-jardun zehatzarekin lotu dugun (erabilera aitarekin, ikaskideekin, klase partikularretan,...). Beheko taulan datu esleitu guztiak jaso ditugu.

Oro har, eskolako erabilera da euskaldunena, bai LMH4n zein DBH2n. Dena den, aldea dago bi ikasmailetan. LMH4n erabilera-tasa esleituak %69,4ko balioa hartzen du. Beraz, eskolan, batez beste, hiru elkarriketatatik bi euskaraz izaten dira. DBH2n, aldiz, %48,0koa da erabilera-tasa esleituak.

Hizkuntza-gaitasuna %40-60 duten udalerrietan eskolako erabilera-tasa antzekoa dugu; LMH4n %62,3 eta DBH2n %45,5⁶.

Eskolaz kanpoko ekintzetan LMH4koen elkarriketak, batzaz beste bitik bat euskaraz izaten da (%52,8), eta dezente jaisten da DBH2koen artean (%36,0).

Etxeko erabilera-tasa esleituak LMH4n %44,4koa da. Zonalde soziolinguistiko bereko udalerrietan, batzaz beste, %33,1koa da. DBH4n, aldiz, Mungian %31,1koa da, eta EAEko udalerrietan %26,5koa. Beraz, bi ikasmailetan etxeko erabilera-tasa altuagoa da Mungian antzeko egoera soziolinguistikoa duten EAEko udalerrietan baino.

Azkenik, azpimarragarria da, erabilera-tasa esleitu baxuena DBH4koen artean jaso dugula lagunekin eskolaz kanpo *whatsappean* ari direnean, %7,8koa besterik ez.



⁶ *6Ikasleak Hiztun* ARRUE ikerketa. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza, 2013.



Erabilera-tasa esleituak

	LMH	DBH
Aitarekin	44,8	32,4
Amarekin	50,3	31,1
Neba-arrebekin	52,8	36,3
Etxean denak batera	45,3	33,4
Gurasoak beraien artean	24,5	19,1
Etxeko erabilera orokorra	44,4	31,1
Ikaskideekin gela barruan	75,5	55,2
Lagunekin jolaslekuan	56,0	26,4
Irakasleekin gelan	86,0	73,5
Irakasleekin gelatik kanpo	68,4	54,8
Irakasleak euren artean	82,1	64,8
Eskolako erabilera orokorra	69,4	48,0
Klase partikularretan	51,8	41,9
Udaleko eta kanpamenduetan	58,5	48,4
Eskolaz kanpoko ekintzetan	52,8	36,0
Lagunekin eskolaz kanpo (whatsapp)	32,0	7,8
WEB kontsumo-tasa	19,0	6,9
TB saioa kontsumo-tasa	14,4	5,8
Musika taldea edo abeslaria kontsumo-tasa	18,8	12,8
Irratsaio kontsumo-tasa	45,0	39,7
Komunikabide eta kultur kontsumo orokorra	20,0	12,7

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015





4.2 Etxeko erabilera


Familia-giroko hizkuntza-ohituren inguruko bost galdera txertatu dira inkestan. Amarekin, aitarekin eta neba-arrebekin zein hizkuntzetan egiten duten galdetu zaie ikasleei. Horretaz gain, gurasoek euren artean nola egiten duten ere galdetu zaie, eta familia osoa elkarrekin dagoenean (otorduetan edo telebistaren aurrean, adibidez) zein hizkuntzatan aritzen diren ere bai. Galdera horiei guztiei emandako erantzunak hurrengo taula eta grafikoetan aurkeztu ditugu.

4.2.1 Erabilera etxean familiako kide bakoitzarekin: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzuë aitarekin? Amarekin? Neba-arrebekin?

Beherago taulan ikus daitekeenez, ia erdia dira LMH4n etxeko harreman guztietan euskaraz aritzen diren haurrak eta herena nerabeak. Aldeak ikusten dira ikasleek emandako erantzunen arabera betiere. LMH4ko ikasleek amarekin gehiago egiten dute euskaraz aitarekin baino, ez ordea DBH2koek. Horiek paretsu egiten dute euskaraz aita zein amarekin. Bi ikasmailetan ordea, aldeak txikiak badira ere, neba-arrebekin amarekin edo aitarekin baino gehiago egiten dute euskaraz.

Familian: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu...		LMH		DBH	
		Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aitarekin	Beti edo gehienetan euskaraz	64	44,8	61	32,4
	Beti edo gehienetan gaztelaniaz	69	48,3	118	62,8
	Beste hizkuntza batean	10	7,0	9	4,8
	Guztira	143	100,0	188	100,0
Amarekin	Beti edo gehienetan euskaraz	73	50,3	59	31,1
	Beti edo gehienetan gaztelaniaz	67	46,2	122	64,2
	Beste hizkuntza batean	5	3,4	9	4,7
	Guztira	145	100,0	190	100,0
Neba-arrebekin	Beti edo gehienetan euskaraz	65	52,8	58	36,3
	Beti edo gehienetan gaztelaniaz	53	43,1	94	58,8
	Beste hizkuntza batean	5	4,1	8	5,0
	Guztira	123	100,0	160	100,0
Aitarekin tasa esleitura		44,8		32,4	
Amarekin tasa esleitura		50,3		31,1	
Neba-arrebekin tasa esleitura		52,8		36,3	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




4.2.2 Erabilera etxean, familiako kide guztiak batera daudenean: Zein hizkuntzatan hitz egiten dute batera zaudetenean (jatorduetan,telebistan...)?

Etxeko guztiak elkarrekin daudenean gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa da gehien-gehienean, bereziki DBH2n. Kasu horretan hamarretik seitan baino gehiagotan gaztelania nagusitzen da edo hizkuntza bakarra da. LMH4n %43,1era jaisten da proportzio hori. Kontrako aldean, euskara nagusitzen den proportzioa LMH4n, %32,0koa da.

7.- Familian: Zein hizkuntzatan hitz egiten... dute batera zaudetenean (jatorduetan,telebistan...)?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz bakarrik	23	16,0	12	6,5
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	23	16,0	29	15,7
Bietan berdina (gaztelaniaz eta euskaraz)	33	22,9	30	16,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	34	23,6	52	28,1
Gaztelaniaz bakarrik	28	19,4	60	32,4
Beste hizkuntza batean	3	2,1	2	1,1
Guztira	144	100,0	185	100,0
Erabilera-tasa esleituak	45,3		33,4	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



4.2.3 Gurasoen arteko hizkuntza erabilera: Zein hizkuntzatan hitz egiten dute gurasoek euren artean?


Gurasoen arteko euskararen erabilera, etxeko guztiak elkarrekin daudenean bezalatsu, dezente jaisten da aita-haur edo ama-haur elkarriketekin alderatuta, baina baita etxeko denak batera daudenean gertatzen diren elkarriketekin alderatuta ere. Etxeko giroan neurtutako adierazle guztietatik haxe da gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa dena.

Tasa esleituari erreparatuta, LMH4ko gurasoen artean, ikasleen arabera, lau elkarriketatik bakarra ematen da euskaraz. DBH2n, proportzio hori bost elkarriketatik bakarrera jaisten da.

Familian: Zein hizkuntzatan hitz egiten... dute gurasoek euren artean?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz bakarrik	6	4,2	8	4,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	14	9,7	18	9,8
Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	26	18,1	12	6,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	23	16,0	30	16,4
Gaztelaniaz bakarrik	70	48,6	105	57,4
Beste hizkuntza batean	5	3,5	10	5,5
Guztira	144	100,0	183	100,0
Erabilera-tasa esleitua	24,5		19,1	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituraren azterlana, 2015



4.2.4 Etxeko erabilera-tasa orokorra


Datu horiek guztiak laburtuta, etxeko erabilera orokorraren tasa esleitu kalkulatu dugu⁷. Etxeko erabilera orokorrari buruzko datuak irakurrita, argi antzematen da egun aztertutako haur eta nerabe gehienek gaztelaniaz egiten dutela beti edo nagusiki euren etxeetan. Aitzitik, gutxiengo argia dira etxean beti euskaraz edo nagusiki euskaraz egiten dutenak (LMH4ko ikasleen %23,0 eta DBH2koen %13,7 besterik ez). Etxeko erabilera-tasa orokorrak adierazten duenez, etxeko harremanen %44,4 dituzte euskaraz LMH4ko ikasleek (eta gainerako %55,6a erdaraz) eta %31,1 DBH2koek (horien kasuan, erdaraz dira %58,9). Funtsezko datuak ditugu honako hauek beste esparru batzuetan ikasleek dituzten hizkuntza-ohiturak eta joerak ulertzeko.

Etxeko erabilera-tasa orokorra multzotan

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Guztia euskaraz, %100,0	1	0,7	2	1,0
Euskara %70,1-%99,0	33	22,3	25	12,7
Euskara %30,1-%70,0	48	32,4	49	24,9
Euskara %1,0-%30,0	46	31,1	60	30,5
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	20	13,5	61	31,0
Etxeko erabilera-tasa orokorra	44,4		31,1	
Guztira	148	100,0	197	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza-ohituren azterlana, 2015

⁷ Haztatzerako irizpideak ikus metodologia oharretan.





4.3 Erabilera eskolan

4.3.1. Erabilera eskolan, ikasleen artean: Eskola giroan ikaskideekin, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu? gela barruan? Jolaslekuan?


Euren ikaskideekin gela barruan ari direnean, euskara da nagusi LMH4ko ikasleen artean: hamarretik ia zazpi diote (%69,8) euskaraz bakarrik edo euskara gehiago erabiltzen dutela gaztelania baino. Erabilera-tasa esleituak %75,5eko balio hartzen du LMH4ko ikasleentzat. Horrek esan nahi du gela barruan, batez beste, ikaskideen arteko lau elkarriketetatik hiru euskaraz izaten direla.

Bestelako egoera antzematen da DBH2an. 15 urte inguruko nerabeek gela barruan izaten dituzten harremanetan euskara da nagusi, baina ozta-ozta gaztelania eta euskaren arteko berdintasunarekin. Zehazki, hamar ikasletik lau pasatxo aritzen dira beti euskaraz (%11,5) edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago (%29,0). Ia parekoak dira bietan berdinean egiten dutenak, %36,6, bost puntu beherago beraz). Dezentte gutxiago dira, beti gaztelaniaz (%7,7) edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago (%14,8) aritzen direnak. Datu horiek guztiak laburtzen dituen erabilera-tasa esleituak %55,2ko balioa hartzen du euskararentzat DBH2ko ikasleen arteko gela barruko harremanetan; euren arteko harremanen erdiak pasatxo euskaraz izaten dituzte eta gainerako ia erdia gaztelaniaz

Eskola giroan ikaskideekin, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu... gela barruan

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskaraz bakarrik	64	46,0	21	11,5
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	33	23,7	53	29,0
Bietan berdinean (gaztelaniaz eta euskaraz)	29	20,9	67	36,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7	5,0	27	14,8
Gaztelaniaz bakarrik	5	3,6	14	7,7
Beste hizkuntza batean	1	0,7	1	0,5
Guztira	139	100,0	183	100,0
Tasa esleituak	75,5		55,2	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Gela barrutik jolaslekura ateratzen direnean, haur eta nerabeak orokorrean hartuta, gaztelaniaren erabilera gora egiten du euren arteko harremanetan eta behera euskararenak. LMH4ko haurrei dagokienez, jolaslekuan lagunekin daudenean, %24,8 aritzen dira beti euskaraz, eta %19,0 euskaraz gehiago gaztelaniaz baino; aldiz, %10,9 beti aritzen dira gaztelaniaz eta %22,6 gaztelaniaz gehiago euskaraz baino. Erabilera-tasa esleituak %56,0ko balioa hartzen du euskararentzat LMH4ko jolaslekuko erabilera. Horrek esan nahi du, batez beste, jolaslekuan haur horien artean gertatzen diren elkarrizketetan gela barruarekin alderatuta euskaren presentzia jaisten dela, baina hala ere, erdia baino gehiago euskaraz izaten direla eta gainerakoak gaztelaniaz.

DBH2ko nerabeen artean are toki handiagoa hartzen du gaztelaniak jolaslekuko elkarrizketetan. Horrela, %1,7k beti euskara eta %5,7k euskara gaztelania baino gehiago erabili arren, erabateko gehiengoa osatzen dute beti gaztelaniaz aritzen direnek (%31,6) edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago (%39,1) egiten dutenak. Deigarria egiten da 15 urte inguruko nerabe horien ia herenak beti gaztelaniaz aritzea jolaslekuko harremanetan, euskarari tarterik txikiena ere eskaini gabe. Jolaslekuko erabilera-tasa esleitua %26,4an kokatzen da euskararentzat DBH2ko ikasleen artean: batez beste, jolaslekuko lau elkarrizketetatik bat euskaraz izaten dute 15 urte inguruko nerabeek, eta hiru gaztelaniaz

Eskola giroan ikaskideekin, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu... jolaslekuan

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz bakarrik	34	24,8	3	1,7
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	26	19,0	10	5,7
Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	31	22,6	37	21,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	31	22,6	68	39,1
Gaztelaniaz bakarrik	15	10,9	55	31,6
Beste hizkuntza batean			1	0,6
Guztira	137	100,0	174	100,0
Tasa esleitu		56,0		26,4

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



4.3.2 Erabilera eskolan, ikasle-irakasleen artean: Eskola giroan irakasleekin, zein hizkuntzatan hitz egiten duzue gelan? Gelatik kanpo?

Gela barruan irakasleekin ari direnean, euskaraz hitz egiten dute nagusiki ikasleek. LMH4ko hamar ikasletik ia zazpi (%67,7) diote beti euskaraz mintzatzen direla irakaslearekin eta %16,2k euskaraz gehiago egiten dutela gaztelaniaz baino. Irakasleekiko gela barruko harremanean bi hizkuntzak berdintsu erabiltzen dituztela diote %11,8k, gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen dutela %1,5ak, beti gaztelaniaz aritzen direla %1,5ek eta beste hizkuntzetan aritzen direla %1,5ak.




Kopuru horiek guztiak aintzat hartuta, euskararen erabilera-tasa esleitu kalkulatu dugu (ikus metodologia-oharrak), eta %86,0koa da LMH4ko ikasleen kasuan. Tasa horrek zera adieraziko luke: LMH4ko ikasleek irakasleekin duten euskararen batez besteko erabilera %86,0koa dela.

DBH2ko ikasleek gela barruan irakasleekin dituzten harremanetan ere euskara da nagusi, nahiz eta gaztelania LMH4ko ikasleen artean baino pisu handiagoa izan. Horrela, irakasleekin gela barruan beti euskaraz aritzen dira DBH2ko hamar ikasletatik lau baino gehiago (%43,2) eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago aritzen dira %28,1. Datuak xehe-xehe hor aurkeztu ditugu taula eta grafikoetan. Erabilera-tasa esleituak adierazten duenez, irakasleekin gela barruan daudenean %73,5koa da euskararen batez besteko erabilera DBH2ko ikasleen artean.

Eskola giroan irakasleekin, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu... gelan

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskaraz bakarrik	92	67,6	80	43,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	22	16,2	52	28,1
Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	16	11,8	29	15,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	2	1,5	10	5,4
Gaztelaniaz bakarrik	2	1,5	13	7,0
Beste hizkuntza batean	2	1,5	1	0,5
Guztira	136	100,0	185	100,0
Tasa esleitu	86,0		73,5	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Euren irakasleekin gelatik kanpo ari direnean ere euskaraz hitz egiten dute nagusiki haur eta nerabe ikasleek, nahiz eta euskararen erabilera apur bat jaitsi gela barrukoarekin alderatuta. Datu xeheak taula eta grafiko hauetan irakur daitezke. Laburtze aldera, esan dezakegu, LMH4ko ikasleen erabilera-tasa esleituari erreparatuz, irakasleekiko euskararen batez besteko erabilera %86,0tik %68,4ra aldatzen dela gela barrutik kanpora aldatutakoan. DBH2ko ikasleen artean, irakasleekiko elkarriketetan euskarak duen tokia ere aldatu egiten da: %73,5koa da gela barruan eta %54,8koa gelatik kanpo

Eskola giroan irakasleekin, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu... gelatik kanpo

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz bakarrik	53	38,7	56	30,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	36	26,3	28	15,5
Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	19	13,9	27	14,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	17	12,4	35	19,3
Gaztelaniaz bakarrik	12	8,8	32	17,7
Beste hizkuntza batean			3	1,7
Guztira	137	100,0	181	100,0
Tasa esleitu	68,4		54,8	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



4.3.3 Ikasleen eskolako erabilera orokorra

Aurkeztutako lau eremuetan hizkuntzen erabilera nolakoa den kontuan hartuta (irakasleekin gela barruan, irakasleekin gelatik kanpo, ikaskideekin gela barruan eta gelako lagunekin jolaslekuan), eta bakoitzari dagokion pisua emanda (ikus erabilitako haztatze-irizpideak metodologia-oharretan), eskolako erabilera orokorra zenbatekoa den kalkulatu dugu ikasle bakoitzarentzat. Grafiko eta taula hauetan aurkeztu ditugu emaitzak.

Ikus daitekeen bezala, ikasleen zati nagusiak (%40tik gorakoak LMH4n eta %60tik gora DBH2n) dezente erabiltzen ditu bi hizkuntzak, nahiko modu orekatuan. Horien aldean gutxi dira beti euskaraz edo beti gaztelaniaz aritzen direnak, LMH4 eta DBH2koen datuak ñgurutzatuta egonik bi multzo horietan. Bi hizkuntzak erabiltzearen joera orokor horri bi iruzkin garrantzitsu egin behar zaizkio:


Ç Aurreko orrialdeetan argi ikusi dugun bezala, neurtutako eremu guztietan, LMH4koek gehiago erabiltzen dute euskara DBH2koek baino. Laburbilduz, esan dezakegu eskola-giroan egiten duten euskararen erabilera, batez beste, %69,4koa dela LMH4ko haurren artean eta %48,0koa, berriz, DBH2ko nerabeen artean.

Ç Kasu batean zein bestean, euskarazko jarduna irakasleekiko harremanetan gauzatzen dute nagusiki. Gainerako ikasleekiko harremanetan gaztelania da nagusi jolaslekuan eta baita gela barruan ere DBH2koen artean (ez, ordea, LMH4koen artean, horiek gela barruan ere gehiago egiten baitute euskaraz gaztelaniaz baino).

Eskolako erabilera orokorra multzotan

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Guztia euskaraz, %100,0	13	8,8	1	,5
Euskara %70,1-%99,0	54	36,5	19	9,6
Euskara %30,1-%70,0	61	41,2	124	62,9
Euskara %1,0-%30,0	16	10,8	33	16,8
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	4	2,7	20	10,2
Guztira	148	100,0	197	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohiturak azterlana, 2015




4.3.4 Erabilera eskolan, irakasleak euren artean: Eskola giroan zein hizkuntzatan hitz egiten dute zure irakasleak beraien artean?


Inkestako galdera batean ikasleei galdetu zitzaizkien euren irakasleak zein hizkuntzatan aritzen ziren euren artean. Ikasleen esanetan, irakasleen arteko harremanetan euskara da nagusi. Erabilera-tasa esleituei begiratuta, esan dezakegu irakasleen artean hamar elkarriketetatik zortzi euskaraz izan ohi direla (%82,1) LMH4ko irakasleen artean eta %64,8 DBH2koen artean.

Eskola giroan zein hizkuntzatan... hitz egiten dute zure irakasleek beraien artean?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz bakarrik	77	55,0	56	29,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	36	25,7	47	25,1
Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	18	12,9	50	26,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	8	5,7	20	10,7
Gaztelaniaz bakarrik	1	0,7	10	5,3
Beste hizkuntza batean			4	2,1
Guztira	140	100,0	187	100,0
Tasa esleitura		82,1		64,8

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015





4.4 Erabilera eskolaz kanpoko jardun antolatuetan: Eskolaz kanpo: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu? klase partikularretan? Eskolaz kanpoko ekintzetan? Udaleku eta kanpamenduetan?

Eskolaz kanpoko jarduerak zein hizkuntzetan egiten dituzten galdetu diegu haur eta nerabeei. Posible ziren guztietatik hiru eremuengatik galdetu diegu: klase partikularrak, eskolaz kanpoko ekintzak eta udaleku eta kanpalekuak.

Euren erantzunen arabera, klase partikularrei dagokienez, LMH4n berdintsu gauzatzen dira, euskaraz eta beste hizkuntzetan eta DBH2n nagusiki beste hizkuntzetan gauzatzen dira jardura horiek (%51,8 LMH4n euskaraz eta gainerakoa erdaraz, erabilera-tasa esleituaren arabera eta DBH2ko ikasleen artean %41,9 euskaraz).

Beste hizkuntza edo erdaren artean gaztelania ez den beste hizkuntza batek hartzen du pisu nabarmen bat, ia laurdena bi ikasmailetan. Klase partikularrez ari garen heinean, kasu honetan pentsatzekoa da ingelesak izango duela pisu handi bat kategoria horretan.


Eskolaz kanpoko ekintzetan, LMH4koen euskara erabilera mantentzen da, DBH2koena puntu batzuk beherago doa, bi ikasmailen arteko aldea kasu honetan handiagoa egiten delarik. Eskolaz kanpoko ekintzetan elkarrizketen erdia baino gehiago euskaraz egiten dituzte LMH4ko ikasleek (%52,8) eta DBH2koen kasuan herena da proportzio hori (%36,0).

Eskolaz kanpoko jardun antolatuen eremuan, neurtutakoen artean, udaleku eta kanpamenduak dira euskararen erabilera altuagoa egiten den esparrua, bi ikasmailetarako. LMH4ko ikasleen hamar elkarrizketetatik ia sei euskaraz izaten dira (%58,5) eta DBH2koen kasuan ia erdia (%48,4).



8.- Eskolaz kanpo: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu...		LMH		DBH	
		Maiztas una	Ehunekoa (%)	Maiztas una	Ehunekoa (%)
klase partikularretan	Euskaraz bakarrik	36	31,6	34	21,5
	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	17	14,9	22	13,9
	Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	18	15,8	20	12,7
	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	5	4,4	23	14,6
	Gaztelaniaz bakarrik	10	8,8	20	12,7
	Beste hizkuntza batean	28	24,6	39	24,7
	Guztira	114	100,0	158	100,0
eskolaz kanpoko ekintzetan	Euskaraz bakarrik	28	19,7	13	7,1
	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	31	21,8	29	15,8
	Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	40	28,2	36	19,6
	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	15	10,6	54	29,3
	Gaztelaniaz bakarrik	24	16,9	50	27,2
	Beste hizkuntza batean	4	2,8	2	1,1
	Guztira	142	100,0	184	100,0
udaleku eta kanpamenduetan	Euskaraz bakarrik	48	35,6	24	15,0
	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	15	11,1	35	21,9
	Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	34	25,2	39	24,4
	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	11	8,1	31	19,4
	Gaztelaniaz bakarrik	25	18,5	29	18,1
	Beste hizkuntza batean	2	1,5	2	1,3
	Guztira	135	100,0	160	100,0
Klase partikularretan tasa esleitura		51,8		41,9	
Eskolaz kanpoko ekintzetan tasa esleitura		52,8		36,0	
Udaleku eta kanpamenduetan tasa esleitura		58,5		48,4	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015






4.5 Erabilera lagunekin eskolaz kanpo, jardun ez antolatuetan: Zer hizkuntzatan? WhatsApp-eratu duzu zure lagunekin azkeneko?

Haur eta nerabe gehienek ez dute inoiz euskara erabiltzen auzoko edo herriko lagunekin dituzten Whatsapp bidezko harremanetan. Horiekin beti gaztelaniaz aritzen direla diote LMH4ko haurren %66,0k eta DBH2ko nerabeen %91,6k. Beste muturrean, lagunekin beti euskaraz jarduten dutela diote LMH4ko haurren %32,0k eta DBH2ko nerabeen %7,8k. Joera orokorra, hortaz, oso indartsua da gaztelaniaren alde.

Zer hizkuntzatan... WhatsApp-eratu duzu zure lagunekin azkeneko?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz	32	32,0	13	7,8
Gaztelaniaz	66	66,0	153	91,6
Beste hizkuntza batean	2	2,0	1	0,6
Lagunekin eskolaz kanpo erabilera tasa esleitura	32,0		7,8	
Guztira	100	100,0	167	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoaren hizkuntza ohituren azterlana, 2015





4.6 Euskara komunikabide eta kultur kontsumoan: Zer hizkuntzatan dago bisitatu duzun azken WEB orria? Telebista saioa? Musika taldea edo abeslaria? Irratsaioa? Filma?

Hedabideen kontsumo-hizkuntza nagusia gaztelania da, alde oso nabarmenarekin. Web orriak, telebista saioak eta filmak gaztelaniaz kontsumitzen dituzte ikasleen proportzio oso altu batek (%81-94), bai LMH4ko ikasleen artean eta bai DBH2koen artean. Euskarazko kontsumoa, aldiz, ez da iristen %20ra (%5-19). Hiruren kontsumoan alde aipagarria dago ikasmaita batetik bestera. Adibidez, LMH4ko ikasleen %14,4k gehien ikusten duen telebista programa euskaraz ikusten du, eta DBH2nia bederatzi puntu baxuagoa da proportzio hori (%5,8).

Filmen kasuan ere, datuak antzekoak dira: %13,0 euskaraz LMH4 eta %5,3 DBH2n.


Irratiaren kasuan ere, ikasleek gehien entzuten dituzten saioak gaztelaniaz dira nagusiki (%55-60), baina euskarazko kontsumoa nabarmen altuagoa da irratian gorago aipatutako hiru arloetan baino (telebista, web orriak eta filmak): %45 LMH4n eta %39,7 DBH2n.

Azkenik, ikasleek gehien entzuten dituzten musika talde eta abeslarien kasuan, euskaraz abesten dutenak %18,8 dira LMH4ko ikasleen kasuan eta %12,8 DBH2koenean. Arlo horretan, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzetan aritzen diren taldeen kontsumoa da nabarmenezkoa: %51,4 da LMH4ko ikasleen artean eta DBH2koen artean berriz, piska bat altuagoa, %53,7.

Zer hizkuntzatan... dago		LMH		DBH	
		Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
WEB orria	Euskaraz	26	19,0	13	6,9
	Gaztelaniaz	107	78,1	164	87,2
	Beste hizkuntza batean	4	2,9	11	5,9
	Guztira	137	100,0	188	100,0
Telebista saioa	Euskaraz	21	14,4	11	5,8
	Gaztelaniaz	123	84,2	174	92,1
	Beste hizkuntza batean	2	1,4	4	2,1
	Guztira	146	100,0	189	100,0
Musika taldea edo abeslaria	Euskaraz	27	18,8	24	12,8
	Gaztelaniaz	43	29,9	63	33,5
	Beste hizkuntza batean	74	51,4	101	53,7
	Guztira	144	100,0	188	100,0
Irratsaioa	Euskaraz	59	45,0	71	39,7
	Gaztelaniaz	67	51,1	103	57,5
	Beste hizkuntza batean	5	3,8	5	2,8

	Guztira	131	100,0	179	100,0
Filma	Euskaraz	19	13,0	10	5,3
	Gaztelaniaz	126	86,3	171	90,5
	Beste hizkuntza batean	1	0,7	8	4,2
	Guztira	146	100,0	189	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



Komunikabide eta kultur kontsumo-tasen sintesia


Kontsumo-tasak denak batera jarrita eta kopuruen arabera antolatuta, argi ikus daiteke diferentzia nabarmena dagoelako, irratsaioak direla euskaraz gehien kontsumitzen duten kultur produktua. LMHtik DBH2ra kontsumo mota guztietan jaitsiera badago ere, bi elementu azpimarratzeko:

- 1.- Irratsaioen euskarazko kontsumoa altua da bi ikasmailetan eta ikasmaila batetik bestera jaitsiera gutxien dagoen eremua da.
2. Ziurrenik irratsaioekin harremanetan, musika taldeen kontsumoa euskaraz ere nahiko paretsu da bi ikasmailetan eta DBH2koen artean, bigarren eremu nagusia da, jaitsierari hobeto eusten dio beste elementuekin alderatuta.

Komunikabide eta kultur kontsumo-tasa esleituak

	LMH	DBH
Irratsaioa	45,0	39,7
WEB orria	19,0	6,9
Musika taldea	18,8	12,8
TB saioa	14,4	5,8
Filma	13,0	5,3
Komunikabide eta kultur kontsumo-tasa orokorra	20,0	12,7

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohiturak azterlana, 2015





5. IKASLEEN HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNA


Ikasleei euskara, gaztelania eta ingelesa, hiru hizkuntza horiek gustuko dituzten edo ez galdetu diegu, eta ondorengo taulatan aurkeztu ditugu eurek emandako erantzunak.

LMH4ko ikasleentzat euskara da hiru hizkuntza hauen artean *gustukoena*: %75,7ri *nahiko* edo *asko* gustatzen zaio. Gaztelania ere ikasleen gehiengo handi batentzat da gustukoa, eta %68,6koa da aipatu proportzio hori. Ingelesaren kasuan berriz, gustuko dutenen proportzio hori euskararena baino 22 bat puntu baxuagoa da (%53,5).

DBH2ko ikasleen kasuan, hizkuntzekiko begikotasunean hurrenkera aldatzen da (gaztelania > euskara > ingelesa), eta euskararekiko iritziak eta ingelesarekikoak nahiko parekoagoak dira LMH4ko ikasleen artean baino, euskararen aldekoak badira ere.

Gustuko al duzu...		LMH		DBH	
		Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
euskara?	Bat ere ez	1	0,7	5	2,6
	Gutxi	2	1,4	9	4,7
	Normal	32	22,2	54	28,1
	Nahiko	15	10,4	46	24,0
	Asko	94	65,3	78	40,6
	Guztira	144	100,0	192	100,0
gaztelania?	Bat ere ez	2	1,4	2	1,1
	Gutxi	7	4,9	4	2,1
	Normal	36	25,2	41	21,7
	Nahiko	33	23,1	54	28,6
	Asko	65	45,5	88	46,6
	Guztira	143	100,0	189	100,0
ingelesa?	Bat ere ez	7	4,9	13	6,9
	Gutxi	15	10,6	22	11,7
	Normal	44	31,0	64	34,0
	Nahiko	41	28,9	36	19,1
	Asko	35	24,6	53	28,2
	Guztira	142	100,0	188	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Euskara eta gaztelania parez pare jarrita, proportzio nagusiak bi hizkuntzetan begikotasun berdina dutenek osatzen dute bi ikasmailetan (%43-44). Aldiz, hizkuntza bati besteari baino begikotasun gehiago diotenean, LMH4n eta DBH2n kopuruak ia ñukatuðegiten dira euskara nahiago dutenen eta gaztelania nahiago dutenen artean. Hau da, LMH4 gehiago dira euskara nahiago dutenak (%35,2) gaztelania nahiago dutenak baino (%21,8) eta DBH2n kopuruak antzekoak dira baina kontrako norabidean. Dena dela, DBH2n gaztelania nahiago dutenen eta euskara nahiago dutenen arteko aldea txikiagoa da LMH4n baino (11,5 puntu gaztelaniaren alde DBH2n eta 13,4 euskararen alde LMH4n)..

Euskararekiko eta gaztelaniarekiko begikotasuna

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara nahiago dutenak	50	35,2	44	23,4
Bi hizkuntzekiko begikotasun-maila bera adierazi dutenak	61	43,0	84	44,7
Gaztelania nahiago dutenak	31	21,8	60	31,9
Guztira	142	100,0	188	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Euskara eta ingelesaren arteko alderaketan, euskarak irabazten du nabarmen haur eta gaztetxoaren begikotasunean, bereziki haurren artean. LMH4n hamarretik seik euskara nahiago dute eta DBH2n %44,7k.

Euskararekiko eta ingelesarekiko begikotasuna

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara nahiago dutenak	86	61,0	84	44,7
Bi hizkuntzekiko begikotasun-maila bera adierazi dutenak	38	27,0	66	35,1
Ingelesa nahiago dutenak	17	12,1	38	20,2
Guztira	141	100,0	188	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoaren hizkuntza ohituren azterlana, 2015



6. IKASLEEN EUSKARAREKIKO IRITZIAK


6.1 Lekuen araberako hizkuntza egokitasunari buruzko ikasleen iritziak

Ikasleen iritzien arabera, bai LMHko ikasleentzat bai DBHkoentzat, neurtutako eremuen artean ikastetxea da euskararen eremu naturalena⁴ bigarren maila batean etxea kokatzen dutela.

Zein hizkuntza doakie hobeto ondoko lekuei/egoerei? Euskara hobeto

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Etxea	34	23,1	59	31,1
Oporrak / Lagunartea	4	2,7	7	3,7
Ikastetxea	105	71,4	120	63,2
Hitzaldiak	2	1,4	4	2,1
Informatika	2	1,4		
Guztira	147	100,0	190	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoaren hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Gaztelaniaren kasuan, bi ikasmailetan etxea eta lagunartearen artean kokatzen dute eremu naturalena modura. DBH2ko ikasleen kasuan gutxiagatik bada ere, lagunarteak etxeari hartzen dio aurre.



Zein hizkuntza doakie hobeto ondoko lekuei/egoerei? Gaztelania hobeto

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Etxea	55	37,7	74	39,6
Oporrak / Lagunartea	50	34,2	77	41,2
Ikastetxea	7	4,8	11	5,9
Hitzaldiak	10	6,8	10	5,3
Enpresa	14	9,6	9	4,8
Informatika	10	6,8	6	3,2
Guztira	146	100,0	187	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Ingelesa ikastetxeko hizkuntza da ikasleentzat nagusiki. Bigarren maila batean kokatzen dituzten eremuak aztertzean datoz aldeak bi ikasmailen artean. LMH4ko ikasleek oporrak/lagunartea kokatzen dute bigarren eremu gisa, nahiz eta hurrengo eremuekin dauden aldeak ez diren handiak. DBH2ko ikasleek ordea, enpresa munduarekin batez ere baina baita informatikarekin egiten dute lotura handiagoa.

Zein hizkuntza doakie hobeto ondoko lekuei/egoerei? Ingelesa hobeto

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Etxea	9	6,4	9	4,9
Oporrak / Lagunartea	16	11,3	18	9,9
Ikastetxea	89	63,1	96	52,7
Hitzaldiak	9	6,4	8	4,4
Enpresa	7	5,0	30	16,5
Informatika	11	7,8	21	11,5
Guztira	141	100,0	182	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Hiru hizkuntzen arteko berdintasuna nagusiki ikastetxean ikusten dute ikasle gehienek, DBH2koen artean 10 puntu gehiago izanik (%47,4 LMH4n eta %57,9 DBH2n). Ondoren oporrak edo lagunartea dator, bereziki LMH4koentzat (%25,9).

Zein hizkuntza doakie hobeto ondoko lekuei/egoerei? Hiru hizkuntzak berdín

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Etxea	19	13,7	18	10,1
Oporrak / Lagunartea	36	25,9	21	11,8
Ikastetxea	66	47,5	103	57,9
Hitzaldiak	10	7,2	15	8,4
Enpresa	5	3,6	11	6,2
Informatika	3	2,2	10	5,6
Guztira	139	100,0	178	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



7. AZTERTUTAKO GURASOEN EZAUGARRIAK


7.1 Seme-alabak matrikulatutako ikastetxea

Inkesta erantzun duten gurasoen artean ia erdi eta erdi banatzen dira seme-alabak, Bentades ikastetxea eta Mungia BHIren artean. Lehenengoak LMH4ko ikasmailan nagusiki eta bigarrenak guztiak DBH2ko ikasmailan.

Seme-alabak matrikulatutako ikastetxea

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bentades ikastetxea	48	84,2	22	23,4
Laukariz ikastetxea	9	15,8	-	-
Mungia BHI	-	-	72	76,6
Guztira	57	100	94	100

Iturria: Mungia BHI haur eta gaztekoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



7.2 Galdera-sortak erantzundako hizkuntzak


Guraso gehienek gaztelaniaz erantzun dituzte inkestak. LMH4ko gurasoen bi herenak horrela egin dute eta DBH2ko gurasoen erdia pasatxo.



Inkesta zein hizkuntzan erantzun duten

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz	19	33,3	45	47,9
Gaztelaniaz / Euskaraz	0	0,0	1	1,1
Gaztelaniaz	38	66,7	48	51,1
Guztira	57	100,0	94	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituraren azterlana, 2015




LMH4ko famili gehienek (%54,4) bi seme-alaba dituzte ikastetxe berdinean matrikulatuak. DBH2n berriz, ia bi herenek seme-alaba bakarra.

1.- Zenbat seme-alaba dituzu ikastetxe honetan?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
1	20	35,1	60	63,8
2	31	54,4	31	33,0
3	6	10,5	2	2,1
4	0	0,0	1	1,1
Guztira	57	100,0	94	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituraren azterlana, 2015




Seme-alaben adinaz, normala den moduan, adin tarte nagusia erantzun duten ikasmailari dagokio, hau da, 9-11 urte LMH4koen kasuan, 12-15 DBH2koen kasuan. LMH4koen kasuan seme-alaba gehiago dituzte adin tarte horretatik behera gora baino. DBH2koen kasuan oso antzekoa da kopurua adin tarte horretatik gora edo behera dituzten seme-alabena.

Seme-alaben adinak

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
0-2 urte	2	2,0	1	0,8
3-5 urte	6	5,9	0	0,0
6-8 urte	14	13,9	6	4,6
9-11 urte	68	67,3	8	6,2
12-15 urte	9	8,9	100	76,9
16-18 urte	2	2,0	15	11,5
Guztira	101	100,0	130	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



8. GURASOEN HIZKUNTZA ERABILERA


8.1 Etxeko erabilera (II)

Inkesta erantzun duten gurasoen artean elkarriketa gehienak gaztelaniaz ematen dira. Horrela da %90,9tan LMH4ko gurasoentzat eta %74,4 DBH2ko gurasoentzat. DBH2ko gurasoen artean %5,6 ez euskara ez gaztelania ez den beste hizkuntza batean aritzen dira.

Zein da etxeko hizkuntza? Gurasoen artean

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	1	1,8	10	11,1
Gehienetan Euskara	1	1,8	2	2,2
Erdiz erdi	3	5,5	6	6,7
Gehienetan gaztelania	12	21,8	9	10,0
Gaztelania	38	69,1	58	64,4
Beste Hizkuntza bat	0	0,0	5	5,6
Guztira	55	100,0	90	100,0
Erabilera-tasa esleitu	11,0		17,8	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoaren hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Guraso hauen arabera ikasmaita batean zein bestean, antzera aritzen dira euskaraz seme-alabak euren artean etxean. Lau elkarriketatik bakarra da euskaraz, DBH2koen kasuan eta piska bat altuagoa LMH4koen kasuan.

Zein da etxeko hizkuntza? Seme-alaben artean

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	5	10,6	8	10,3
Gehienetan Euskara	5	10,6	8	10,3
Erdiz erdi	7	14,9	15	19,2
Gehienetan gaztelania	9	19,1	18	23,1
Gaztelania	21	44,7	28	35,9
Beste Hizkuntza bat	0	0,0	1	1,3
Guztira	47	100,0	78	100,0
Erabilera-tasa esleitu	25,5		27,7	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Bi ikasmailetan bost puntu egiten dute gora euskaraz izaten diren elkarizketak guraso eta seme-alaben artean izaten direnean. Hau da, guraso eta seme-alaben artean gehiago egiten da euskaraz seme-alaben beraien artean baino, gurasoen arabera.

Zein da etxeko hizkuntza? Gurasoen eta seme-alaben artean

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	7	12,5	9	9,7
Gehienetan Euskara	3	5,4	12	12,9
Erdiz erdi	10	17,9	17	18,3
Gehienetan gaztelania	13	23,2	15	16,1
Gaztelania	23	41,1	36	38,7
Beste Hizkuntza bat	0	0,0	4	4,3
Guztira	56	100,0	93	100,0
Erabilera-tasa esleitu	30,7		32,2	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




8.2 Erabilera lagunartean

Gurasoen ingurua ere erdalduna da nagusiki. LMH4ko gurasoek haien lagunekin %13,2tan izaten dituzte elkarrizketak euskaraz. DBH2ko gurasoek, proportzio hori ia laurdenera igotzen da.

Zein da laneko eta lagunarteko hizkuntza? Gurasoek euren lagunekin

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskara	1	1,8	12	12,9
Erdiz erdi	6	10,7	19	20,4
Gehienetan gaztelania	14	25,0	14	15,1
Gaztelania	34	60,7	46	49,5
Beste Hizkuntza bat	1	1,8	2	2,2
Guztira	56	100,0	93	100,0
Erabilera-tasa esleitu	13,2		23,4	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Seme-alaben lagunekin euskara gehiago erabiltzen dute LMH4ko ikasleek DBH2koen baino. LMH4ko ikasleen arteko elkarriketen ia herena euskaraz dira (%30,7) eta DBH2ko ikasleen artea ia laurdena (%23,1)



Zein da laneko eta lagunarteko hizkuntza? Seme-alabek euren lagunekin

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	2	3,7	2	2,2
Gehienetan Euskara	3	5,6	1	1,1
Erdiz erdi	19	35,2	20	21,5
Gehienetan gaztelania	15	27,8	36	38,7
Gaztelania	15	27,8	33	35,5
Beste Hizkuntza bat	0	0,0	1	1,1
Guztira	54	100,0	93	100,0
Erabilera-tasa esleitu	30,7		23,1	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Familia osoa beste familiekin harremantzean, bi ikasmailetako euskara erabilera antzekoa da. Bost elkarriketatik bat euskaraz izaten da (%18,0 LMH4n eta %20,2 DBH2n).

Zein da laneko eta lagunarteko hizkuntza? Gurasoek seme-alaben lagunekin eta gurasoekin

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	2	3,6	2	2,2
Gehienetan Euskara	0	0,0	1	1,1
Erdiz erdi	12	21,4	22	23,7
Gehienetan gaztelania	9	16,1	21	22,6
Gaztelania	32	57,1	44	47,3
Beste Hizkuntza bat	1	1,8	3	3,2
Guztira	56	100,0	93	100,0
Erabilera-tasa esleitu	18,0		20,2	

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




9. ERABILERAREN BILAKAERA SUBJETIBOA

Bi ikasmailetako euskara erabilera etxean mantendu egin da azken 2-3 urteetan familien bi herenentzat. LMH4ko familien kasuan, epealdi horretan euskararen erabilera igo edo jaitsi egin direnen proportzioak antzekoak dira (%14,0 euskara erabilera igo eta %19,3 jaitsi). Aldiz, DBH2n, badirudi gaztelania gehiago igo dela euskara baino (%21,6 gaztelania gehiago eta %12,5 euskara gehiago).

Badago alderik zuenean euskararen erabileran, orain dela 2-3 urtekoarekin konparatuta?
Etxean

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskara gehiago	8	14,0	11	12,5
Berdintsu	38	66,7	58	65,9
Gaztelania gehiago	11	19,3	19	21,6
Guztira	57	100,0	88	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Kalean kopuruak oso antzekoak dira bi ikasmailetan. Gehiengo batentzat euskararen erabilera ez da aldatu eta aldatu dela uste dutenen artean, DBH2n gehiago dira gaztelaniaren aldera aldatu dela uste dutenak euskararen aldera baino.

Badago alderik zuenean euskararen erabileran, orain dela 2-3 urtekoarekin konparatuta?
Kalean

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskara gehiago	9	15,8	11	12,4
Berdintsu	38	66,7	54	60,7
Gaztelania gehiago	10	17,5	24	27,0
Guztira	57	100,0	89	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015





10. SEME-ALABAK ETA EUSKARA, GURASOEN IRITZIAK

10.1 Seme-alaben hizkuntza-ohiturak


10.1.1 Eragiten duten faktoreak

Seme-alaben hizkuntza ohituretan gehien eragiten duen faktorea ingurua dela uste dute guraso gehienek, bai LMH4n bai DBH2n (%69,6 eta %61,8 hurrenez hurren). Ondoren, bigarren faktoreari dagokionean desadostasuna dago bi ikasmailetan: LMH4ko gurasoen iritziz ikasten ari diren hizkuntzetan duten gaitasunak du garrantzia gehiago (%19,6) eta DBH2n euskararekiko jarrerak garrantzia gehiago du (%25,8).

Ondoko faktoreetatik, zeinek uste duzue eragiten duela gehien zuen seme-alaben hizkuntza-ohituretan?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Haurrak direnetik, inguruan euskara asko entzuteak eta erabiltzeak	39	69,6	55	61,8
Ikasten ari diren hizkuntzetan duten gaitasunak	11	19,6	11	12,4
Euskararekiko jarrerak	6	10,7	23	25,8
Guztira	56	100,0	89	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza-ohituren azterlana, 2015




10.1.2 Gurasoen eragin aukera eta kezka

Gurasoek zereginik badutela pentsatzen dute guraso gehien gehienek. Hamarretik zortzi inguruk horrela pentsatzen dute. Aldiz oso gutxi dira eremu honetan irakasleen esku ardura osoa uzten dutenak.

Baduzue gurasoek zereginik seme-alaben hizkuntza-ohituretan?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, nire esku dago neurri batean, eredu naizen aldetik	47	85,5	67	77,9
Ez, horretarako daude irakasleak, ikastetxea	2	3,6	5	5,8
Ez dakit	6	10,9	14	16,3
Guztira	55	100,0	86	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza-ohituren azterlana, 2015




Ikasmaila bat izan edo beste, gurasoak arduratuta daude seme-alaben hizkuntza erabilerengatik. Ia bi herenek horrela sentitzen dute. Beste herena inguruk seme-alaben erabakien gain uzten dute ardura edo erabakia.

Arduratzeko zaituztete seme-alaben hizkuntza-ohiturek, lagunekin edo beste inguru batzuetan zein hizkuntzatan berba egiten duten?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, euskaldunak dira eta euskaraz egiten ahalegindu beharko lukete	37	67,3	55	61,8
Ez, eurek erabakiko dute zeinetan egin	18	32,7	33	37,1
Berdin dit			1	1,1
Guztira	55	100,0	89	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza-ohituren azterlana, 2015



Gurasoen artean aipatutako kezka handienetako bat kaleko erabileraren ingurukoa da. Horren aurrean bi jarrera ezberdintzen dira. Batetik, euren seme-alabek euskara jakinda kalean lagunekin euskara ez erabiltzea ez da ulertzen edo ez dute gustuko eta seme-alaben gain jartzen dute horren ardura. Bestetik, portaera berdinen aurrean, inguruko eraginari botatzen diote errua, hau da, inguru erdaldunak eragin duela haien seme-alabek gaztelaniara pasa behar izatea.

Baduzue seme-alaben hizkuntza-erabileraren inguruko kezkarik?

	LMH4 Erantzun kopurua ⁸	DBH2 Erantzun kopurua
Erabileraren inguruko kezka	6	17
Ume euskaldunak izan arren kale erabileran jaitziera nabarmena	6	11
Inguruaren presioa kalean gaztelaniaz egin dezaten	-	5
Gurasoen euskararen erabileran dago gakoa	-	1
Euskaraz ikastearen ondorioen inguruko kezka	3	4
Euskaraz ikasteagatik gaztelaniaz moldatuko diren	1	2
Inguru erdalduna izan eta ikasketak euskaraz egiteagatik, eskola errendimendua bajua izatea	1	1
Hizkuntza bat bera ere ez menperatzea	1	-
Euskara ondo ikasi dezan, gaztelaniaz zein euskaraz komunikatu ahal izateko	-	1
Eskolan mailan egin beharreko esfortzuak	3	3
Ingelesaren alde esfortzu handiagoa egin beharko luke eskolak	2	1
Euskara (idatziaren) mailaren inguruko kezka	1	1
Euskarako ikasgaia praktikoagoa izan beharko luke, erabili dezaten bultzatzeko	-	1
Euskararekiko gurasoen jarrerak	1	4
Guraso erdaldun gisa saiakera egiten dugu seme-alabek euskara erabili dezaten	1	3
Geroz eta hizkuntza gehiago ezagutu gero eta mentalitate eta jarrera irekiagoa	-	1

⁸ Gurasoek kezka bat baino gehiago adierazi dezakete.




10.2 Seme-alabek euskararekiko duten jarrera

Gurasoen arabera, LMH4ko ikasleek jarrera positiboagoa dute euskararekiko DBH2koek baino (%91,1 eta %77,5 hurrenez hurren). DBH2n kopuru esanguratsu bat dago, gurasoen arabera, euskararekiko aldeko jarrerarik ez duten ikasleena (%16,9).

Zuen seme-alaben euskararekiko jarrera zelakoa dela iruditzen zaizue?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehuneko (%)	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Euskararen aldeko jarrera.	51	91,1	69	77,5
Ez du euskararen aldeko jarrerarik	3	5,4	15	16,9
Ez dakit edo berdintzat	2	3,6	5	5,6
Guztira	56	100,0	89	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



10.3 Seme-alabek etorkizunean izango duten hizkuntza erraztasuna


LMH4ko gurasoek uste dute beraien seme-alabek euskara bigarren maila batean izango dutela, erraztasunari dagokionean, ikasketak amaitzean (%67,3). Aldiz, ia heren batek lehen hizkuntza gisa ikusten dute izango dela. DBH2n, multzo nagusia bigarren maila batean izango dutela uste dutenena da baita ere, baina kopuru apalago batean, 15 puntu beherago. Erraztasun handiena euskaraz izango dutela uste dutenak piska bat gehiago dira (%35,2) LMH4n baino. Kopuru esanguratsu batek, DBH2n, uste du euskara hirugarren maila batean geratu dela. Kopuru hori nabarmen igotzen da LMH4ko ikasmailatik.



Zuen ustez, ikasketak amaitzen dituztenean, zein hizkuntzatan izango dute erraztasunik handiena? Euskaraz

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
1	16	30,8	31	35,2
2	35	67,3	46	52,3
3	1	1,9	11	12,5
Guztira	52	100,0	88	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Gaztelanian erraztasun handiena izango dutela uste dute gurasoen gehiengo batek. Hamarretik zazpik horrela uste du. Besteak, bigarren mailan ikusten dut. Ia ez dago gurasorik gaztelania hirugarren mailan izango dutela uste duenik.

Zuen ustez, ikasketak amaitzen dituztenean, zein hizkuntzatan izango dute erraztasunik handiena? Gaztelaniaz

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
1	39	72,2	59	69,4
2	15	27,8	24	28,2
3	0	0,0	2	2,4
Guztira	54	100,0	85	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Ingelesa hirugarren mailan ikusten dute LMH4ko ia guraso guztiek eta DBH2ko hamarretik zortzi. DBH2n ordea, badaude hainbat guraso uste dutenak ingelesa bigarren edo hare gehiago lehen maila batean izango dutela haien seme-alabek ikasketak amaitutakoan (%12,0 eta %4,8 hurrenez hurren).

Zuen ustez, ikasketak amaitzen dituztenean, zein hizkuntzatan izango dute erraztasunik handiena? Ingelesez

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
1	0	0,0	4	4,8
2	1	2,0	10	12,0
3	50	98,0	69	83,1
Guztira	51	100,0	83	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015





11. GURASOEN PRESTUTASUNA EUSKARAREN INGURUAN


Gurasoek, orokorrean, jarrera positiboa dute egin ahal zaizkien proposamenak edo martxan jarri ahal diren ekimenak kontuan hartzeko orduan. Dena dela DBH2ko gurasoen jarrera piska bat positiboagoa da (ia 9 puntu gorago, %67,8).

Ezezko posizioan badira hainbat guraso ere. LMH4ko gurasoen artean, lautik batek dio ez dituela kontuan hartuko eta DBH2ko gurasoen artean bostetik ia batek.

Euskararen erabilera bultzatzen lagundu dezaketen ekimenak eta proposamenak kontuan hartzeko prest zaudete?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	33	58,9	59	67,8
Ez	14	25,0	16	18,4
Ez dakit	9	16,1	12	13,8
Guztira	56	100,0	87	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Ekimenak edo proposamenak kontuan hartzeko prest agertu diren gurasoetatik bi heren baino gehiagok parte hartzeko prest agertzen dira baita ere. Besteak, gehienak, ez dakite zer erantzun. Ezezko erantzuna ematen dutenak oso gutxi dira.



Eta parte hartzeko prest zaudete?

	LMH4		DBH2	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)		
Bai	13	65,0	30	71,4
Ez	1	5,0	3	7,1
Ez dakit	6	30,0	9	21,4
Guztira	20	100,0	42	100,0

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015



Proposamenen bat baduzue horren inguruan, idatzi hemen eta adierazi zelan lagunduko lukeen

	LMH4 Erantzun kopurua ⁹	DBH2 Erantzun kopurua
Erabilera sustatzeko ekintza proposamenak	6	10
Irakurketa indartu	1	1
Kale ekintzak (ipuin kontalariak kalean, antzerkiak, kale bertsolariak...)	2	2
Jolastokian euskara erabilera indartu (jarduerak proposatuz, euskal kantuak)	2	-
Jolastokiko euskara erabilera kontuan izateko euskara ikasgaiko notarako	-	2
Elkarbizitzak	-	1
Mintzalagunak ikasleentzat	-	1
Euskararen historia soziala erakutsi	-	1
Mungiako euskara indartu, ez soilik batua	-	2
Beste ikastetxeetako ikasleekin komunikazio sareak sortu ikasleen artean	1	-
Gurasoei bideratutako neurriak	3	5
Norberak euskara ikastea, gurasoei laguntzea euskara ikasten	2	3
Gurasoen artean euskara erabilera indartzea	1	2
Ondo doa dena	1	0
Denbora eta pazientzia behar da, lorpenak izugarriak dira	1	-
Bestelakoak	0	3
Merkatariei laguntza/presioa egin euskara ikasteko	-	1
Hizkuntzak maitatu, ez inposatu. Euskara ikasteko laguntza gehiago eta presio gutxiago	-	2

Iturria: Mungiako haur eta gaztetxoek hizkuntza ohituren azterlana, 2015

⁹ Gurasoek proposamen bat baino gehiago egin dezakete.



ONDORIOAK

Ikasleen ezaugarriak: ikasmailak, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna

Guztira **345 ikasle** aztertu dira. Horietatik, erdia baino gehiago (%56,1) DBH4koak dira, besteak LMH2koak¹⁰. LMHko ikasleen %41,3k lehen hizkuntza euskara dute eta beste %32,9 euskara eta gaztelania. DBHn %25,9 eta %33,5 dira hurrenez hurren. Beraz, batean %74,1ak euskara du (soilik edo erdararekin batera) lehen hizkuntza eta bestean %59,4k.

Inkesta erantzun duten ikasleen artean, euskaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa dute LMHko ikasleek DBHkoek baino. Euskaraz errazago egiten dutenak %28,1 dira LMHn eta %15,7 DBHn. Nabarmentzekoa da nerabeen artean (DBH) hamarretik lau hobeto moldatzen dela gaztelaniaz euskaraz baino (%41,9). LMH4n hamarretik bi dira gaztelaniaz hobeto aritzen direnak (%19,2).

Lehen hizkuntza kontuan hartuz, euskaraz gain gaztelania duten ikasleek gaztelaniaz aritzeko erraztasun handiagoa adierazten dute eta erraztasun hori DBHn da handiagoa.

Ikasleen hizkuntza erraztasuna eta begikotasuna

Bi hizkuntzak elkarrekin aztertuta, DBHn gehiago dira gaztelania euskara baino errazagoa dela diotenak (%48,2). LMHn ez dago alderik eta beraz, euskara eta gaztelania antzera irudikatzen dute: %29,4 dira euskara errazagoa dela diotenak eta baita gaztelera errazagoa dela diotenak ere.

Aldiz, euskara eta ingelesaren artean, kopuruak beste batzuk dira, eta orokorrean euskararen alde egiten dute. Horrela, LMHko ikasleen %65,7k uste du euskara errazagoa dela eta %48,7k DBHkoen artean.

Hizkuntza ezberdinekiko begikotasunarekin, erraztasunarekin bezalatsu gertatzen da. Multzo nagusiak bi hizkuntzekiko begikotasun maila bera dutenak osatzen dituzte (%43,0 LMHn eta %44,7 DBHn). Aldiz, euskara eta gaztelaniaren arteko konparaketan LMHko ikasleek euskara nahiago dute (%35,2) eta DBHkoen artean gaztelania nagusitzen da (%31,9).

Euskara eta ingelesarekin aldiz, bi ikasmailetan, multzo nagusiak euskararekiko begikotasun handiagoa dutenak osatzen dute (%61,0 LMHn eta %44,7 DBHn).

Ikasleen hizkuntza erabilera: argazki orokorra

Oro har, **eskolako erabilera** da euskaldunena, bai LMHn zein DBHn. Dena den, aldea dago bi ikasmailetan. Batez beste, LMHn hiru elkarriketetatik bi euskaraz

¹⁰ Atal honetan, hemendik aurrerako testuan ikasmaien maila zehatza ez dugu adieraziko, hau da, Lehen Mailako Hezkuntza (LMH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz (DBH) arituko gara.



izaten dira. DBHn, aldiz, bitik bat. Hizkuntza-gaitasuna %40-60 bitartean duten EAEko udalerrietan eskolako erabilera-tasa antzekoa dugu; LMHn %62,3 eta DBHn %45,5¹¹.

Eskolaz kanpoko ekintzetan LMHkoen elkarriketak, batz bestetik bat euskaraz izaten da (%52,8), eta dezente jaisten da DBHkoen artean (%36,0).

Etxeko erabilera-tasa esleitua LMHn %44,4koa da. Zonalde soziolinguistiko bereko udalerrietan, batz bestetik, %33,1koa da. DBHn, aldiz, Mungian %31,1koa da, eta EAEko udalerrietan %26,5koa. Beraz, bi ikasmailetan etxeko erabilera-tasa altuagoa da Mungian antzeko egoera soziolinguistikoa duten EAEko udalerrietan baino.

Azkenik, azpimarragarria da, erabilera-tasa esleitu baxuena DBHkoen artean jaso dugula lagunekin eskolaz kanpo *whatsappean* ari direnean, %7,8koa besterik ez.

Erabilera-maila jardun eta eremuen arabera

Euskararen erabilerari dagokionean, **LMHko ikasleak dira euskara gehien erabiltzen dutenak** orokorrean.

Beraien etxeetan denak batera daudenean, %32,0 euskaraz bakarrik edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dute LMHn. DBHn %22,2 dira horiek. Aldiz, LMHn, %43,1ek dio nagusiki edo bakarrik erdara dela beraien etxeko hizkuntza. DBHn %60,5 dira horiek.

Gurasoen arteko erabilera dezente baxuagoa da; bi ikasmailetan %14 ingurukoa da nagusiki edo erabat euskaraz izaten diren elkarriketen ehunekoa.

Nahiz gurasoen eta ikasleen datuak bere horretan ezin diren alderatu, laginaren osaketa ez baitator guztiz bat (1 atalean aztertu dugu unibertsoa eta lagina), azpimarragarria da etxeko erabilerari buruzko **pertzepzioa desberdina** dela gurasoen eta ikasleen artean. Etxeko elkarriketa posible guztietan, ikasleek etxean euskara gehiago erabiltzen dela uste dute gurasoek adierazi dutena baino. Beraz, ikasleek euskararen erabilerarekiko pertzepzio positiboagoa dute (batez ere, Lehen Hezkuntzako ikasleen iritziei erreparatzen badiegu).

Era berean, ikasleen arabera, etxean daudenean **neba-arrebekin** hitz egiten dute gehien euskaraz eta gurasoak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. Gurasoen arabera, ordea, euskara gehien erabiltzen den uneak denak elkarrekin daudenekoak dira. Beraz, seme-alaben erabilera (%25,5) ikasleek aitortzen dutena (%52,8) baino nabarmen txikiagoa dela iruditzen zaie. Dena den, ikasle zein gurasoen laginari erreparatuta datu horiek ondorio garbi bat baino joera bat adierazten dute.

¹¹ *ÓIkasleak Hiztunô* ARRUE ikerketa. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza, 2013.



Bestalde, **lagunekin** bi item neurtu dira: lagunekin jolaslekuan eta bidalitako azken whatsapp-a. Aldea nabarmena da bi ikasmailetarako. Jolaslekuan, neurri batean, gune libre bat izanik, ikasleek lagunekin egiten duten hautua %56,0 euskaraz egitea izaten da LMHn eta %26,4 DBHn. Aldiz, whatsappetan euskararen erabilera 24 puntu jaisten da LMHko ikasleen kasuan eta 18,6 puntu DBHko ikasleen kasuan.

Horretaz gain, LMHko eta DBHko ikasleen euskara erabilera ezberdinen artean, salto handiena lagunekin giro ez-formaletan daudenean gertatzen da. Jolastokian zein eskolaz kanpo lagunekin, bietan 24 puntuko aldea edo gehiago dago LMHkoen alde (Lagunekin jolaslekuan LMHn %56,0 eta DBHn %26,4, 29,6 puntuko aldea. Lagunekin eskolaz kanpo berriz, LMHn %32,0 eta DBHn %7,8, 24,2 puntuko aldea).

Gurasoak

Bi multzoek, LMHko eta DBHko gurasoek, euskararen aldeko **jarrera** nabarmena dute.

Bien arteko aldeak azpimarratuz gero, orokorrean inkesta erantzun duten gurasoen artean, DBHko gurasoak eta haien ingurua, LMHkoak eta haien ingurua baino euskaldunagoa dute.

Orain bi-hiru urterekin alderatuta, **guraso** gehienek **iritziz**, euskararen erabilera ez da aldatu (%65 inguru bi ikasmailetan). Aldiz, aldatu dela uste dutenen artean, gehiago dira gaztelania gehiago erabiltzen dela uste dutenak (etxean eta kalean) euskara gehiago erabiltzen dela uste dutenak baino.


Azpimarratzeko datua, DBHko gurasoen **pertzepzioa** kaleko erabilerarekiko da. LMHko gurasoak baino ia 10 puntu gehiago dira uste dutenak kalean gaztelaniaren erabilera igo egin dela (%27,0 eta %17,5). Eta guraso berdinen pertzepzioa, DBHkoena alegia, baina etxeko erabilerarekin alderatuta, ia 5 puntu gorago dago.

Beraz, badirudi, DBHko gurasoen artean bereziki kaleko giroa dela euskaratik gehien urrundu dena azken urteetan edota hori dela gehien kezkatzen dituen.

Euskarekiko seme-alabek duten jarrerari garrantzia handiagoa ematen diote DBHko gurasoek LMHkoek baino (LMHko gurasoek %10,7, DBHko gurasoek %25,8), baina, seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko haien esku-hartzearen inguruan konfiantza gutxiago agertzen dute nerabeen gurasoek.

